BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1042

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 30ekoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan aurreikusitako laguntzen onuradun diren entitateen zerrenda. Dekretu horren bidez, enpresa-elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak ematea arautzen da, enpresa-elkarteen eta sindikatuen giza baliabideen kualifikazioa haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko.

Diru-laguntza publikoak emateko jarraitu beharreko publizitate-printzipioa betetzeko, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuak, 12.4 artikuluan, xedatzen du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela xedapen horren babespean emandako diru-laguntzen onuradun diren entitateen zerrenda, baita emandako diru-laguntza aldatu zaienena ere, hori guztia berariazko banakako jakinarazpena baztertu gabe. Laguntza horietarako 2014ko ekitaldirako deialdia Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko Aginduaren bitartez egin zen.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan aurreikusten diren laguntzen onuradun diren entitateen 2014ko ekitaldirako zerrenda, espediente-zenbakia, entitate onuradunaren izena eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa adierazita, ebazpen honen eranskinean jasotzen den moduan. Aipatutako dekretu horren bidez, enpresa-elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak ematea arautzen da, enpresa-elkarteen eta sindikatuen giza baliabideen kualifikazioa haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko; eta, 2014. urterako deialdia Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko Aginduaren bidez egin da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 30a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
JOSÉ JAVIER LOSANTOS OMAR.

ERANSKINA

Espediente Zk.	Entitatea	Diru-laguntza
14.0190	Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioa	185.034
14.0187	Euskadiko C.S. CC.OO.	91.584
14.0185	Langile Abertzaleen Batzordeak	83.657
14.0186	Union General De Trabajadores de Euskadi-UGT Euskadi	57.077
14.0189	LSB-USO	8.767
14.0188	Ezker Sindikalaren Konbergentzia-E.S.K	6.435
14.0183	Euskal Enpresarien Konfederakuntza «CONFEBASK»	200.174
14.0184	Elbe Elkartea	30.912
14.0192	ASLE-Euskadiko Lan Sozietateen Elkartea	30.520
14.0191	Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa	15.840